







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %2,6 egin zuen gora irailan, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Sektoreka, industrian %1,5 igo zen, gehienbat siderurgian izandako igoeraren ondorioz (%6,7); zerbitzuan, berriz, 0,7 jaitsi zen eta bizitegi alorrean %12 egin zuen gora.

Industria alorrean iraila arteko kontsumo metatuari dagokionez, iazkoaren azpitik segitzen du; zehazki, %2,5. Zementuan kontsumoak %30,6 egin zuen behera, itsas eraikuntza eta konponketan %14, kautxuaren eratorrietan %6,9 eta beiragintzan %6,3. Siderurgian eta kimika alorrean kontsumoa %0,6 eta %0,4 igo zen, hurrenez hurren.

Gas naturala

Irailan gas naturalaren guztizko kontsumoak %8 egin zuen behera, 2012ko irailan izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %18 jaitsi zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena %3,7.

Hirugarren hiruhileko artean metatutako kontsumoak %5 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta (-%13,9 CCTT-n eta -%2 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Abuztuan, garraioan erregaien kontsumoa %2,7 jaitsi zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %11,3 egin zuen behera eta A gasolioenak %1,3.

Abuztu arteko kontsumo metatua %1,7 igo da, iazkoarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %8,5 egin zuen behera eta A gasolioenak, aldiz, %3,2 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Irailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 90,7 milioi kupel izan zen (2012ko irailaren aldean, %1,9 igo zen). Hartara, urtebetean, Europar Batasunean %0,4 egin zuen behera kontsumoak, 13,7 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan, berriz, %1,9 igo zen, eta 18,5 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan %4,7 egin zuen gora, eta 10,8 Mbd kontsumitzera heldu zen.

Munduan, azken bi hiruilekoetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1 igo da, oro har, eta %6,1 Txinan; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %2,9 eta %0,6 jaitsi da, hurrenez hurren.



Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian gas naturalaren kontsumoa %8 jaitsi zen irailan, 2012ko hil horretan izandakoaren aldean; eta urtearen hasieratik metatutakoak %9,3 egin du behera. Elektrizitatearen kontsumoak ere behera egin zuen irailan (%0,3), 2012ko irailan izandakoarekin konparatuta, eta urteari dagokion metatua %3,1 jaitsi da hirugarren hiruilekoa arte.

Errepideetan erregaien kontsumoak %4,2 egin zuen behera abuztuan, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %5,6 jaitsi zen, eta %3,9 gasolioen kasuan. Abuztu arteko kontsumo metatutakoak %5,5 egin du behera (%7 gasolinena eta %5,1 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %1,2 egin zuen gora abuztuan; hala ere, urteari dagokion metatua %4,7 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 111,6 \$ (83,6 €) izan zen irailean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %2,3 egin zuen behera (%3,3 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %5,4 igo zen ekainean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 25,4 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %6,4 egin zuen behera abuztuan, iazko hil berean izandakoarekin konparatuta, eta 27 €/MWh iritsi zen.

Ikatzaren prezioa

Ekainean, ikatzaren prezioa 74 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %19,1 jaitsi da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %5,5 egin zuen gora irailean, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 50,2 €/MWh iritsi zen. CESUR oinarritzko prezioa irailean 47,9 €/MWh izan zen, %14,8 jaitsiz, 2012ko epealdi horretan izandakoarekin erkatuta.

Erregaien prezioa

EAEn, abuztuan, gasolioaren prezioa 1,33 €/l izan zen eta gasolinarena 1,42 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %2,4 eta %1,3 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,2 €/t izan zen ekainean, eta 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %49,2 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.

